

## KAIOEN ARRISKUA

Azken egunotako berria da. Kostaldean, hala ere, ongi konturatuak zeuden. Kaiok –antxeta, hegaxuri, marloi eta zirlingek– elikatze eta ernaltze ohiturak aldatu egin dituzte eta osasun arazo larrien iturri bihurtu dira gizakiontzako. Lehen itsasazal gaineko arrain, karramarro eta detrituak osatzen zuten haien dieta. Elikagaiok lortzeko zailtasunak mugatzen zuen kaio populazioaren tamaina. Urtean behin elkartzen ziren ernalketarako. Orain, berriz, hirietako zabortegi handietan aurkitu dute elikadura oparo eta erraza. Ernalketarako elkarketa kopurua bikoiztu egin dute. Kaio populazioa, jakina, hazi egin da izugarri. Arriskua argia da zabortegi inguruetan bizi diren pertsonentzat: kaiok ez diote gizakiari beldurrik eta oldartu ere egiten zaizkio. Etxe teilatuetan egiten dituzte habiak eta zabortegietako mikrobiologia daramate etxeetara. Kaiok, beraz, arrisku mota bikoitza daukate gizakion osasunerako: fisikoa bata, mokokada zuzenaren bidezkoa; bakteriologikoa bestea, hanketan dakarten zabortegiko zikinkeriaaren eta hustutako zirinaren bidezkoa.

Kaioen arriskuari aurre egiteko hartutako neurriek ez dute orain arte emaitza onik lortu. Arrautzak desegin, sareekin harrapatu, soinu-uhin, gas-kanoi eta suziriekin uxatzen saiatu, hontzak eta belatzak erabili kaiok akabatu eta izutzeko... Azken honen kasuan, adibidez, izutu, hasieran izutzen omen dira, bai; baina talde estrategia erabiltzen ere ba omen dakite. Kaiorik ahulenak –martiriak– harrapakarien esku hiltzen uzten dituzte, gainerakoek –«kaiarteak»– lasai bazkatzen jarraitu ahal izateko.

Kaio –antxeta, hegaxuri, marloi eta zirlinga– populazioarekin batera, beraz, handitzen jarraitzen du giza osasunarentzako arriskuak. Harrotuta dabilta kaiok, bandada builosoetan, euren moko luze lotsagabeak erakutsiz, azpian daukaten guztia menpean hartuko dutelakoan. Itsasotik zaborrerako bidea egin dute eta bide hori izango dute azkena. Bada espainiar alderdi politiko bat, orain ez naiz akordatzen juxtu zein den, ikur gisa kaiok dauzkana...